

Asisko gutuna

2016ko Martxo. 1. printzipioa. Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

89. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Jainkoarekin harremanean jartzea bilatzen dugu. Eta bilaketa honetan harridura goizeko muxua bezala da. Horrexek adierazten digu harremana erreala dela, Zu hori “nor” dela. Ez dela ideia bat, ez dela kausa bat, ez dela terapia bat, ez dela sentimendu bat. Erreala da, eta harritu egiten gaitu, txunditu, geuretik ateratzen gaitu, eta berari begira jartzen gaitu. Mua!

Gogoetarako gaia

Harridura

Haur ginela gure harritzeko gaitasunak eraman gintuen ikastera, aztertzer, bilatzer... Baina helduz goazen neurrian galduz goaz gaitasun hori; eta uste dugu dena dakigula, dena ezagutzen dugula eta jada ezerk ezin gaituela harritu, bizitzea tokatzen zaigun existentzian.

Harridura adierazteko gaztelaniak erabiltzen duen hitz bat “asombro” da, eta horren azpiko hitza “sombra” da, hau da, iluna edo argifalta. Beraz, harridurak aterarazi egiten gaitu itzaletik, gauzen, pertsonen...alde argitsua begiratzeko, eta ezagutzen ez zena agerian ikusteko. Beraz, harritzeko gaitasunera itxita bagaude, itxita egongo gara geure eguneroko bizitzak ekar lekigukeen berritasun orora. Eta, ez al da harrigarria maitasuna, adiskidetasuna, familia...bizitza bera?

Hainbeste telebista eta ordenagailu... dugu inguruan, eta berorietan hainbeste nahigabe

eta sufrimendu ikusten dugu bai eta edertasun eta altruismo ere; baina hain presaka bizi garen ez dugu betarik munduan dagoen on dena nahiz txar dena miresteko.

Agian hain betarik gabe gabiltza, non ezin dugun ingurura begiratu, begiak zabaltzeko eta naturan, harremanetan eta Jainkoagan eskaintzen zaiguna ikusteko.

Ez al da harrigarria harremanetan jarri ahal izatea Jainkoarekin, bere Seme Jesusengan agertzen zaigunarekin eta gutako bakoitzarekin komunikatu nahi duenarekin?

Hain ohituak gaude entzuten, Jainkoa gurekin dagoela, maite gaituela, gu salbatzera etorri dela, non jada ez gaituen harritzen eta txokatzten. Jainkoak berak bilatzen nau egunez egun, eta maitasun-historia bat izan nahi du nirekin! Ez gaitu horrek aho zabalik uzten? Eta nola erantzuten diogu?

Ebanjelioko pasartea: Mk 10,13-16

Beste batean, haurrak eraman zizkieten Jesusi, uki zitzan; ikasleek, berriz, haserre egiten zieten. Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen eta esan zien: «Utzi hurrei niregana etortzen, ez galazazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko». Eta haurtxoak magalean hartu eta bedeinkatu egiten zituen, eskuak ezarriz.

Frantziskotar espiritualtasuna

Bai miseria handia eta ahulezia negargarria, bera hain bertan eduki eta zuek munduko beste zerbaitez axolatzea! Gizakia osorik ikara bedi, mundua osorik dardara, zerua bozkaria, Kristo, Jainko bi-ziaren Semea aldare gainean apaizaren eskuetan dagoenean! Oi goitasun miragarria eta beheratze harrigarria! Oi apaltasun gorena! Oi gorentasun apala, mundu osoaren Jauna, Jainkoa eta Jainkoaren Semea gu salbatzeko ogi-zatitxo baten moldean gordetzeraino apaltzea! Begira, anaiok, Jainkoaren apaltasuna eta zabaldu hari zeuen bihotza, apal zaitezte zeuek ere, berak goraltza zaitzaten.

Xume eta txikiak harriduraz betetzen dira; adibidez Frantzisko “zerbitzari eta txikitxo”. Txundituta uzten du hura Jainkoaren apaltasunak: hura gure eskuetara etortzeak, hura, legamiaren antzera, altxagarri eta salbatzaile izateko ezkutuan gelditzeak. Sor eta lor uzten dute maitasunez barkatzen dakiten bihotz-garbikoe; eta miresmenez betetzen du Goi-goikoaren ospearean irudi den kreazioaren edertasunak. Frantzisko, bihotz apalez, miraz gelditzen da eta goresteari ematen dio.

Otoitza

Pobre zaren horrek maite gaituzulako.
Maitez zauritu horrek sendatzen gaituzulako.
Ezkutuan egonik ere, argitzen gaituzulako
mundua errukiak sutzen duenean.
Beti aurretik, beti zain egonez
gidatzen gaituzulako,
ADORATZEN ZAITUT.

Atsekabetik begiratzen eta inozentziatik
irribarre egiten diguzulako.
Zure seme-alaba kolpatuen larrialditik
erregu egiten diguzulako,
ematen dugun besarkadan
eta partekatzen dugun bizitzan
besarkatzen gaituzulako
ADORATZEN ZAITUT.

Nik neuri baino gehiago barkatzen didazulako,
oihuz eta murmurioz deitzen nauzulako
eta inoiz bakarrik bidaltzen ez.
Nire ahulezia ezagutzen duzun horrek
nigan konfiantza duzulako
ADORATZEN ZAITUT.

Mukuru betetzen
eta geldotik ateratzen nauzulako.
Begiak irekitzen dizkidazulako
eta nire horizontean ebanjelioa jartzen.
Nire bizitza, bertan sartzen zarenean,
betea delako
ADORATZEN ZAITUT.
José M^a Rodríguez Olaizola, sj

Gutuneko azken hitzak

“Harridura: gizakia iritsi daitekeen gailurrik garaiena.” Goethe

2016ko martxoko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate martxoko erreferentzia guztiak:

1 Mt 18,21-35	8 Jn 5,1-3,5-16	15 Jn 8, 21-30	22 Jn 13,21-33.36-38	29 Jn 20, 11-18
2 Mt 5,17-19	9 Jn 5,17-30	16 Jn 8, 31-42	23 Mt 26, 14-25	30 Lk 24, 13-35
3 Lk 11, 14-23	10 Jn 5, 31-47	17 Jn 8,51-59	24 Jn 13, 1-15	31 Lk 24, 35-48
4 Mk 12 28-34	11 Jn 7,1-2.10.25-30	18 Jn 10,31-42	25 Jn 18,1-19,42	
5 Lk 18, 9-14	12 Jn 7, 40-53	19.Mt 1,16.18-21.24a	26 Lk 24,1-12	
6 Lk 15,1-3.11-32	13 Jn 8, 1-11	20 Lk 23, 1-49	27 Jn 20, 1-9	
7 Jn 4, 43-54	14 Jn 8, 21-30	21 Jn 12,1-11	28 Mt 28,8-15	

Martxoko Otoitza hilaren 31an izango da.



Asis Sarea

646 21 48 96